

PIARRES XARRITON DERIOKO IKASTAROAK OMENDUA

Aurtengo udan, uztailaren 10ean, Derioko Udako Ikastaroak Piarres Xarriton¹ omendu eban ikastaro amaierako ekitaldi akademikoaren barruan.

Derioko Udako Ikastaroa Labayru Ikastegiaren ekintzetatik handiena da, ikastegia bera baino lehenagokoa da eta. Aste biko ikastaroari atzena emoteko, urtero-urtero egiten da ekitaldi akademikoa, eta urteokaz, ganera, euskal kulturari eta euskararen arloan nabarmendu diran pertsonen omenaldia egiten deute. Manuel Lekuona, Mokoroa, Aita Lino Akesolo, Aita Santi Onaindia, Sorné Unzueta, Karmelo Etxenagusia, Eusebio Erkiaga, Augustin Zubikarai, Antonio Zavala eta beste askori eskertu eta aitortu jake bide horretatik euskal hizkuntza, literatura, kultura eta enparauetan egindako lana.

Aurtengo ekitaldian Piarres Xarriton izan da omendua, uztailaren 10ean Derion bertan egindako ospakizunean.

¹ *Jakin* aldizkaria euskal kulturari bide luzea egin dauan jendearen testigantza jasotzen dabil aspaldian, euren ahotik, alkarriketa luze-zabalen bitartez. Sail hori hasteko lehenengo aukeratu ebena Piarres Xarriton izan zan. Imanol Muruak egin eutsan alkarriketa luzea eta *Jakin* aldizkariaren 97. zenbakian dago (1996ko azaroa-abendua). Guztiz interesgarria da Xarriton ezagutzeko eta bere ingurua zelan ikusi dauan jakiteko be.

XXIX.
UDAKO EUSKAL
IKASTAROA



PIARRRES CHARRITTON-I
OMENALDIA

Derio, 1998. uztailak 10

Saioa bera apala baina samurra izan zen, omenduaren eta ikastaroaren hainbat lagun alkartu ziran eta.

Mahaian, erdian omendua, eta ondoan ekitaldian parte hartu eben hizlariak: Karmelo Etxenagusia, Mitxel Lekuona, Igone Etxebarria, Beñat Oihartzabal eta Adolfo Arejita. Bakotxak Xarritonen izakeralanen alderdi baten barriemon eban, halan, apurka-apurka azalera agertu ziran haren nortasun handia eta behar ugariak. Halakoetan izaten dan moduan, norberak ahaztuta daukazan gauzak be gogoratuten dabez ingurukoek, aspaldiko kontu gazi-gozoek, egindakoak eta egin beharrekoak, egin eta ahaztutakoak, norberak baino hobeto gogoratu be. Xarritonek be, ondo koen ahotik ekarri ebazan gogora lehenagoko pasadizo eta egitadak, joan-etorri eta atzera-aurrerak.

Izan be, sarritan esan deusien moduan, Xarritonek memoriak idatziko baleuz, gure herriaren historia zati luze bat osatzeko datu jakingarri asko eta asko argituko lirateke, gauza jakingarriak ganera, bai



berak bai inguruko hainbat jendek bizi, egin edo pairatuta-koak.

Xarriton gizon ekintzailea izan da, edozeren aurrean atzera egingo ez dauana, ziurra jokabideetan, norabide argikoa, behargina, eta hori dana hainbat arlotan ganera. Alderdiok hizlarien artean banandu ziran, bakotzak bateri heldu eutsan eta. Mixel Lekuonak pertsona eta lagun moduan goratu eban, alkarregaz bizi izandako hainbat esperientziatan ondo oinarrituta. Igone Etxebarriak hegoaldeetik Xarriton zelan ikusi izan dan, eta harek bere inguruan egindako gauzak hemen zer eragin euki daben, tartean Derioko Ikastaroagaz beragaz euki dauan hartuemon. Karmelo Etxenagusia be berba ederrak eta pasadizo gozoak gogoratu ebazan Xarritonen izakera ondo erakusten dabenak ganera. Beñat Oihartzabalek saio labur bezain zoragarria egin eban, Iparraldeko kultur tradizioan Xarriton nondik norako bidean kokatu behar dan zehaztuz. Eta Adolfo Arejitak Xarriton "hizlariaren" prestakuntza, iturriak eta ezaugarriak aztertu ebazan esataritza saio dotorean, berak ohikoa dauan moduan.

Han entzundakoak danak hona ekartea luzea izango litzateke, baina hizlari bakotzak erabilitako gaiak jakingarri batzuk gogoratuko doguz.

Ikasle zala, Xarritonek Piarres Lafitte euki eban irakasle, gidari eta eredu. Erroman ikasi eban, gero Kanadan be egon zan, eta doktoradutza bi daukaz eginda, bata Herrien eskubideei buruz eta bestea Piarres Broussainen ganean, zein baino interesgarriagoak biak.

Alderdi pertsonala Mitxel Lekuonak gogoratu eban omenaldiko egunean. Haren berba etorriak ez eukan azkenik Xarritonen ekintzak gogoratu eta goraipatzeko. Gehien baten gazteekaz egindako lana azpimarratu eban. Izan be, Piarres Xarritonek, Iparraldeko gazteek herritik alde egin behar ez izateko, bertan lanbide eskola bat egin behar zala uste eban. Eta ez uste bakarrik, bai egin be, Mitxel bera be tartean zala. "Gazte" izeneko taldea sortu eban herriko gazteak Elizaren gerizpean hezi eta herria maitatzen ikasteko.

Beti euki dau Xarritonek gazteen ardura apartekoa, baina herriaren barruan, gure herriagaz bat eginda.

Xarritonen jarduna kultur arlokoa izan da ia beti. Azken urteotan politikan apur bat sartu bada be, beste era bateko ekintza, alkarte eta erakundeetan ikusiko dogu sarrien.

Gazte-gaztetatik irakurle sutsua izan da. Osaba bat euki eban abadea, eta haren liburutegian hainbat liburu eta hainbat eratakoak leiduteko aukera euki eban. Baina berak dinoanez, ordutik jatorko euskerarako zaletasuna eta aberria maitatzeko abertzaletasuna be.

Leidutakoen artean, idazle eta idazlan batzuk aparteko eragina egin eutsien. Horreetariko bat Frantzisko Vitoria arabarra. Horren omenez hartu eban berak hainbat artikulutan erabili eban Xabier Gasteiz ezizena. Eta ez hori bakarrik, oraintsu "Klasikoak" bildumarako haren lana itzuli egin dau.

Xarriton luzaroan izan da Iparralde eta Hegoalde bananduen arteko lotura, modu askotan. Gehien baten eliza eta kulturaren bitartez, jakina.

- Aipatu doguzan "Gazte" taldea eta aldizkaria eredugarri ziran diktadurapeko urteetan Hegoaldeko abadegaien artean. Beste talde batzutan parte hartu dau, "Fededunak" izenekoan kasurako, Euskal Herri osoko ordezkariakaz alkarregaz behar egiteko.

- Euskaltzain osoa da Iparraldeko ordezkari, horrez ganera hainbat alkarte eta erakundegaz alkarlanean jarduteko inoiz ez dau eragozpenik euki.

- Kultur arloan aipatu daigun omendu dauan erakundea, Labayru Ikastegia. Joan daneko urteetan urtero urtero etorten



zan Deriora Xarriton, mende honetan Iparraldean kulturak egindako joan-etorrien barri emoteko, Ikastaroko azkenengo mailan Iparraldeko Literatura ikasten eben ikasleei. Orduan, hori izaten zan bizkaitar askorentzat Iparraldeko, hau da, beste era bateko euskerea entzuteko eta gozatzeko aukera ia bakarra, barria bai behintzat.

Horrez ganera, hainbeste informazino daukanez, hainbeste jente ezagututen dauanez, hainbeste leidu dauanez, sarritan jo behar izan dogu berarengana zertan edo hartan, eta beti euki dogu laguntza ikaragarria Xarritonengan. Horregaitik ba, har-



tuemon nahiko jarraikoa euki dau Derioko Ikastaroagaz eta Labayru Ikastegiagaz, eta horrek gehiago justifikatzen dau omenaldia egitea.

Ekintza askotan egon bada be, Xarritonek ez dau lan asko argitaratu urte askotan. Esan daiteke lan gehienak azkenengo urteetan egin dituala. Ez doguz danak banan-banan aitatu, arlo nagusien irudi bat emon baino.

- Alde batetik Xarritonek beste idazle handi batzuen lanak batu dauz eta edizino osotuak egin. Holangoen artean Jean Etxepare medikua, Piarres Larzabal eta Jose Mendiague aitatu-ko doguz, artikulua eta idazlan bildumarik handienak horreenak egin dauz eta. Idazleok artikulua, antzerki, bertso asko eta asko egin ebezan baina aldizkarietan eta han-hor-hemen sakabanatuta geratu ziran eurak hiltzean. Lan hori berreskuratzeara aberastasun handia da duda barik, irakurle guztiok idazlanok batuta eta eskura euki ahal izateko.

- Beste arlo bat artikuluen bitartez bete dau. Halangoetan era askotakoak dagoz: Elizaren inguruko gaiak erabili ditu gehien, aspaldian batez be; gizarte gaiak sarritan izan dira Xarritonen idatzien gai, euskal gizartean kokatuta beti be; euskal

hizkuntza be izan dau hainbat artikuluren gai, Euskaltzaindiaren batzordeetan parte hartzen dauanetik harako honetaz edo hartaz landutako gaiak; literatura arlokoak be egin ditu, Iparraldeko idazle, bertsolari eta egileei buruzkoak gehien bat.

Artikuluok hainbat aldizkaritan dagoz: *Gazte, Herria, Gure Almanaka, Egan, Jakin, Euskera*.

- Itzultzaile moduan pentsamendu arloko lanak itzuli ditu batez be, hori be bere prestakuntza eta jorratu dituan jakintza arloakaz lotuta. Aitatu dogu lehenago Frantzisko Vitoria, baina beste batzuenak be egin ditu: Tomás Moro eta Spinozarenak besteak beste.

- Eta azkenerako itxi doguz liburu moduan landutakoak: *Es-kualdunak* (1943), *Petite histoire religieuse du Pays Basque* (1946) eta *Le droit des peuples à leur identité* (1977). Azken hau da Xarritonek egindako tesietako bat, bestea, Broussainen ganean egindakoa, frantsesez egin eban eta argitaratu barik dago. Ona litzateke euskeraz argitaratzea euskaltzale hori hobeto ezagutu daigun. Izan be, Beñat Oihartzabalek egindako hitzaldian, haregaz parekatu eban Xarriton, tesi horretan irakurritakoan oinarrituta.

Baina Xarritonek badauka beste ezaugarri bat, hizlari ona izatea. Gaur egun jende gitxik dauka berbaz Xarritonek daukan etorria, gauzak adierazteko eta komunikatzeko gaitasuna. Hizlari, esatari apartekoa da, ahozko erregistroa ondo be ondo menperatuten dau. Horretan Otsoi eta Saint Pierre izan ditu batez be eredu. Gurago izan dau horreen ereduari eutsi misiolarienari baino, beti gauza bera esaten ei eben eta.

Datu zehatz-zehatzik emon ez badogu be, Xarritonen erretratu moduko bat egin dogu, nondik norako nagusiak euskaltzale bete-beteko hau ezagutzeko. Eta udan Derion egindako omenaldiaren jarraipena izan daitela lantxo apal hau be. Zorionak!

Igone Etxebarria